





SORGIN-ARGIEN EHIZAN - Joan Mari Irigoien- 2022

IDAZLEA:

- [Joan Mari Irigoien](#)
- [literaturaren zubitegia - Joan Mari Irigoien](#)
- [Euskararen Donostia - Donostiako euskal idazleak](#)

BERRIAK:

- [Joan Mari Irigoien, Altxako hormetan bizirik : Irutxuloko Hitza](#)
- [Joan Mari Irigoien idazlea hil da](#)
- ['Amodiozko gutuna', Joan Mari Irigoienaren hausnarketa eutanasiaren inguruan | Kultura | Naiz](#)
- ['Sorgin-argien ehizan' poesia-liburua eman eta 'Babilonia' gaurkotu du Joan Mari Irigoienek | Kultura | Naiz](#)
- [Joan Mari Irigoienek 'Sorgin-argien ehizan' poema-liburu berria idatzi eta 'Babilonia' nobela klasikoa gaurkotu du – KULTUR SHAREA](#)
- [Garrasi bat eta oihartzun berritua, biak dakartza Joan Mari Irigoienek | Kultura | GARA Euskal Herriko egunkaria](#)

BIDEOAK:

- [Joan Mari Irigoien, "Sorgin-argien ehizan" eta "Babilonia" berritua.](#)
- [Joan Mari Irigoienek "Sorgin-argien ehizan" poema liburua eta "Babilonia"ren edizio berria aurkeztu ditu.](#)
- [Joan Mari Irigoienaren gaur-gaurko poemak eta orain dela 33 urteko eleberri gaurkotua | El Diario Vasco.](#)

KRITIKAK:

- [Garrasiak garrasi, "Poz data" da poetaren "Post data" - Mikel Asurmendi.](#)
- [Poesia soziala litekeenaz Aitor Francos.](#)



AZPIMARRAK:

OHARRA: Poema Liburu hau Kanariar Irletako La Palman berriki gertatu den hondamendia baino aski lehenagokoa da. Gertaera horrek, izan ere, zalantza batzuk ekarri dizkit.

HITZAURREA:

César Manrique artista ezaguna hil zenetik. Gizon honek atentzioa eman izan dit beti. Haren lan guztiak, izan ere –pinturak, eskulturak eta haren saio arkitektonikoak–, erabat integratuta daude ingurugiroan.

Goazen, bai, lagunok, Lanzaroteko lur ezin ederragoez goatzera:

1. atala GARRASIAK

MANCHA BLANCA: GABRIEL ARESTIRI

Haren hitzak (G. Aresti) iparrizartzat harturik, ea garaile irteten garen **egiaren aldeko eta gezurraren aurkako gerran...**

maisur handiaren hitzak neure egiten ditudala, **inoiz ere nire juramentua hautsirik, gezur bat badiot,** izan dadila eguzkia ilundu ez dadin, ilargia argitu dadin, arrosak orriren bat irabaz dezan, krabelinak usainik gal ez dezan.

ARRIETA: HIZKUNTZARI

Hizkuntza bat hiltzen denean mundu bat hiltzen da, mundua hiltzen da,

TEGUISE: HARROKERIARI

Harrokeria da nigandik urrunen nahiko nukeena:

Goizean kukurruku egin duen oilarrari di-da batean moztu dio harakinak lepoa, arratsalde.

NAZARET: TORTURARI, TORTURATZAILEEI

Horra hor, Polizia Komisaria bat, **LEGEAREN ZERBITZUAN** eraiki zutena, eta horra hor, halaber, torturapean dagoen mutila,

PLAYA QUEMADA: IDEALEI EUTSI

Ez zaitez inoiz izan zeure egia aldarrikatzeaz lotsa...

Behin aholkuak ematen hasita, beste bat ere emango dizut: **idealen garrari eustea neketsua den arren, ez itzali,** ez –guztiz ez bederen– eta bereziki salatuko ditudala –kemen apurño bat izatekotan, noski– ahaltsu eta boteretsuen gehiegizko gehiegikeriak:

LA DEGOLLADA: Gasteizko martxoaren 3ko hildakoei

CHARCO DEL PALO: GEURE AHALMEN ETA EKIMENAK KONTROLATU

bukatu da bizitzan eman dezakedana baino gehiago eman nahi izatea,



PLAYA BLANCA: LUMUMBA EDARIA/HEROIA

Lumumba hot or cold? Galdetzekotan egon naiz zer kontsumizio klasea ote den: kafe patardun afrikarren bat, edo Kongoko koko-edari alkoholiko bereziren bat...Lumumba, Kongoko heroi nazionala, politikari argi bezain bihotz-beroa, Katangan fusilatua, AEBen kontsentimendurekin, jakina.

MACHER: TIMANFAYAKO LUR SAKRATUAK ETA TURISTAK

Zerbait egin behar nuen, turistei eta gameluzainei nire desadostasun etiko-estetikoak erakutsi gutxienez,

LA GRACIOSA: TIANAMENEKOA, AUSARDIAZ, HEROIZIDADEAZ

tanke beldurgarri haiek geldiarazi baitzenituen:

tanke batzuei aurre egitea eta haiek geldiaraztea ez baita nolanahiko huskeria!

KANOI-HOTSAK: GERLAZ, HEROIEZ

Hiltzaileenak hartzen ditu Historiak heroitzat...

Esan nahi baita euskaldunok ez garela batere artistak izan Gerraren Artean! Eta, hala ere, ongitox ulertzen dut **Herri erasotuok dugun eskubidea, geure burua defendatzekoa**: une jakin batean komeni den edo ez den komeni, beste kontu bat da.

Ustelkeria dela, bai demokraziaren ezaugarri printzipala, eta bai demokraziak eman duen fruiturik gozoena ere.

Espainiako erregeen arma negozioak eta terrorismoa.

2. atala KANTUAK

PLAYA HONDA: ITSASOARI BEGIRA hutsaren hurrengo sentitzeraino

Hantxe zaude, bai, ur-uhin isilak lehertzen diren gunetik hamar bat metrora, kresalaren usainak bilduta, harean etzanda,

TINAJO: DENBORAREN IZAERAZ

Oro da hil edo bizi, oro da denboraren baitako, baina batzuetan –gutxi batzuetan– guztiz beste gauza bat da denbora bera ere: horren susmoa dut bederen...

ORZOLA: JABEGOA-DESJABEGOA

Ez nintzen ezeren jabe, baina, horregatik, beharbada, guztiaren jabe sentitu nintzen une batez.

HARIA: BIZITZA-HERIOTZA

Irrika are biziago bat gailendu zitzaidan ezustean, hil egin nahi izan bainuen orduantxe, mundutik desagertu...

PUNTA MUJERESEKO AMETS ITURRIA: ITTURRIA-HAURTZARORA BIDAIA



Iturri minimo horrek erabat sorginduta nauka eta –bere apalean apal, bere xumean xume–, munduaren ederra du laburbiltzen...

VULCANOREN LANAK: **MAHATSONDOA BAINO ARTELANA**

Gero, berriz, mahatsondoari begira, bihurtu naiz mahatsondo, bihurtu naiz orri... harresiak bihurtarazi nau babesleku, bihurtarazi nau harri.

LA SANTA: **POEMAK-HITZAK-BIG BANG**

Zer besterik dira poema honen hitzak ere argi-puntu hegalariaik baizik, hara eta hona dabiltzanak, gauminaren ibilbide orotan barrena...?

HOTELEKO TERRAZA BAKARTIAN:

3. atala AMODIO INFINITUAREN NOSTALGIA

On ne peut plus vivre de frigidaires, de politique, de bilans et de mots croisés, voyez-vous. On ne peut plus. On ne peut plus vivre sans poésie, couleur ni amour..." SAINT-EXUPERY

1945ean, hil aurretik, lagun bati idatzitako gutunetik

LEIRE: **LEIREN BARETASUNA-INFINITUA-ZALANTZA ESISTENTZIALA**

Tigrea antxumearekin lotaratuko da, zekorrak eta lehoiak munduaren bazter orotara zabalduko dute BAKEaren mezua,...–fraideen kantu xalo bezain sublimeak eraginda-edo...?–, emozio are handiago batek hartu nau:...**ez baitago esplikatzerik nola nagoen honen lasai, honen bare,** sosegu handi batek harturik, zeren, bat-batean eta bete-betea, gorputzaren mugak ezabatu eta sentitu bainaiz, ezer izan gabe –puntu bat infinitutasun baztergabea galduta–, OSO... Momentuaren biribiltasuna...!

Edo guztia ote da irudimenaren iruzurra, irudikeria huts... eta infinitutasunaren kontzientzia izateak nigan sortutako harrokeriaren fruitu, azken batean?

Baietz, **nik badakidala nire testigantza hau irudimenaren iruzurra izan daitekeela,**

inozentziaren sehaska baitut altxor, hantxe hil nahi nuke, oinaze gehiegizko eremuetatik landa, EUTANASIAREN ARGITAN, din-dan eta din-dan.

Droga, prostituzioa, armak, migratzaileak, usoa bakearen mezua burua galduta, Hor da hora eta han da han (une mistikoa dantzan???)

Aitor dut, beraz, BIZI EGIN NAHI DUDALA